

LEKEITIOKO ESKOLA PUBLIKOA IKASKOMUNITATEA



TALENTUZ

LEHEN HEZKUNTZA

LEKEITIOKO
ESKOLA PUBLIKOA
IKASKOMUNITATEA

IKAS
KOMU
NITAT

LEHEN HEZKUNTZA

AURKIBIDEA

LEKEITIO ESKOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA	6
DEMOKRAZIAREN ALDEKO ESKOLA	7
LEHEN HEZKUNTZA	9
TALENTUZ SORMENA ETA JAKINTZA HAURTZAROTIK	14
Ikas Komunitateak	14
Eskolako proiektuak	14
Elkartasunaren curriculuma	14
Aniztasunaren trataera	15
Ikasleen arteko elkarlana	16
Ikasleen ebaluaketa	16
Hezitzaileak	18
Metodologia	18
Senideen lankidetzak	19
Herri Hezitzailea	19
TALENTUZ LABORATEGIAK	20
EGUN BAT LABORATEGIAN	25
PROIEKTUAK	29


ÍNDICE

PROYECTO EDUCATIVO DE LA ESCUELA PÚBLICA DE LEKEITIO	34
SOMOS UNA ESCUELA DEMOCRÁTICA	35
EDUCACIÓN PRIMARIA	37
TALENTUZ CREATIVIDAD Y SABIDURÍA DESDE LA INFANCIA	42
Comunidades de Aprendizaje	42
Proyectos educativos	42
Currículo solidario	42
Tratamiento de la diversidad	43
Educadoras/es	44
Metodología	44
Trabajo colaborativo entre el alumnado	45
Evaluación del alumnado	45
Participación de familiares	47
El pueblo como espacio permanente de aprendizaje	47
AULAS-LABORATORIO TALENTUZ	48
UN DIA EN LAS AULAS LABORATORIO	53
PROYECTOS	57



Gure eskola inklusiboa da aniztasunaren eta elkartasunaren alde egiten duelako, eskubideak eta askatasuna ardatz dituelako eta balio etikoetan oinarrituz bazterketa guztien kontra borrokatzen duelako.

Gure eskolan umea dugu erdigunean, ahalmen handiko umea, etengabe mundua sortzen eta ikertzen ari dena, ideia, sentipen eta fantasiak bor-bor erabiltzen dituen eta jendartean kritikoki, aktiboki eta elkarkidetasunez parte hartzeko prest dagoena.



LEKEITIO ESKOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

Lekeitioko Eskolako Hezkuntza
Proiektua lau programez osaturik
dago:

TALENTUZ: sormena eta jakintza hautzarotik

Ikasle guztien ahalmen, gaitasun, premia eta gogoia asetzeko beharrezko diren jakintzak eta ezagutzak batzen dituen egitasmoa.

ELKARREKIN: indarkeriarik gabeko elkarbizitza harmoniatsua

Eskola bizikidetza-gune eta herrigintzan eragile bihurtzeko estrategiak batzen dituen egitasmoa.

DENONA: partaidetza solidarioa jendartean eta komunitatean


Hezkuntza komunitatea eraikitzeko parte hartzea eta lankidetzak bultzatzen duen egitasmoa.

PRESTATU: maila goreneko prestakuntza ezagutzaren gizartean

Hezkuntza komunitateko eragileen garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko egitasmoa.



DEMOKRAZIAREN ALDEKO ESKOLA



Eraldaketa soziala eta justizia bultzatzen dugu pedagogia eta hezkuntza kritikoaren bidez

Eskola demokratikoa, kritikoa eta eraldatzailea nahi dugu eta horretarako esparru askotariko ikerketa, teoria, hausnarketa eta mundua ulertzeko era desberdinetan oinarritzen gara, pertsonarteko heziak gaindituz jendarte abegikor, solidario eta askea eraikitzeko.

Ilusioa, maitasuna eta bizipoza partekatzen goaz

Eskola abegitsu eta atseginak komunitateko partaide guztien ongizatea, begirunea eta elkartasuna bultzatzen ditu. Proiektu erakargarri zein interesgarria garatuz, horrek sorrarazten digun bizipoza partekatuko dugu.

Aniztasunaren aldekoak gara

Eskola inklusiboa garenez, gizarte egoera ahulagatik, sexuagatik, erlijioagatik, kultura, etnia edota edozein arrazorengatik bazterketa arriskuan dauden ikasle, familia eta herritarrek babesten ditugu.

Kultura guztien arteko adiskidetasuna eta errespetua lantzen dugu

Eskola osatzen dugunon jatorrizko kultura guztiak aintzat hartu eta goraiatzat ditugu, gure arteko laguntza trukatzat eta elkarrengandik ikasiz.

Jendarte justua, baketsua, solidarioa eta jasangarria eraikitzen gabiltza

Elkarrekin bizitzea, elkarrengandik ikastea eta elkarren ardura hartzea dira gure egiteko nagusiak eta, horretarako, eskola-komunitate adeitsua, laguntzailea eta bizigarria eraikitzen dugu ikasle kritikoak, solidarioak, eta planeta jasangarriaren aldekoak hezituz.

Euskaldunak gara eta mundura zabalik gaude


Euskal Herriko Eskola Publikoa osatzen dugun neurrian euskaraz bizi gara eta herritarren erroka sozialak, kulturalak eta politikoak geureak egiten ditugu; hala ere, mundura zabalik gaudenez, gainerako kultura, etnia edota jatorri desberdina duten pertsonen bizinahi, amets eta oztopoak ere geureak egiten ditugu.

Elkarbizitzan eta hezkidetzan oinarrituz, indarkeriaren kontra egiten dugu

Neska eta mutilen arteko parekotasuna aldarrikatuz, indarkeriaren eta patriarkatuaren kontra jarduten gara, eta hezkidetzaren, emakumearen, sexu aniztasunaren eta ardura partekatuen alde egiten dugu, bizipozezko komunitate irekia eta anitza bultzatuz.

Balioak eta bikaintasunezko hezkuntza elkartzen ditugu

Giza jakintzak eta jakintza akademikoak uztartuz, ikasle guztien eskola arrakasta lortzen dugu beharrian gehien dutenei laguntza eskainiz, bazterketak gaindituz, senide eta komunitatearen parte hartzea bultzatuz eta ezagutza, ilusioa eta maitasuna oinarri dituen "eskola demokratikoa" Haur Hezkuntzatik Unibertsitateraino hedatuz.





LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzaren xede nagusiak

Lehen Hezkuntzak, zuzentasun eta justizian oinarrituz, aukera eta emaitzen berdintasuna eskaini behar du ikasle guztientzat, inolako bazterketarik gabe; horretarako.

- ✓ Pertsonen garapen integrala lantzen du: motriz, afektiboa, soziala, kognitiboa eta espiritual.
- ✓ Kulturaren oinarrizko elementuak eskuratzeko prozeduretan alfabetatu eta jakintza horiek modu kontziente eta integratuan erabiltzen ditu bizitzaren maila guztietako egoerak eta problemak konpondu eta hobetzeko.
- ✓ Ikasleak helduarorako prestatzen ditu bizi-kidetza harmonikoagoa lortzeko eta gizarte justuago eta ekitatiboagoa bihurtzeko. Gizarte anitz eta globaleko kide aktibo eta naturaren kontserbazioarekin eta garapen jasangarriarekin konprometitutako pertsona izan dadin.



Curriculumaren euskal dimentsioa: hizkuntza eta kultura

Globalizazioaren homogeneizazioari aurre egiteko beharrezkoa da euskal kulturaren eta euskararen garapena sendotzea, eta horretarako, hezkuntza-sistemak euskal kultura eskuratzeko erreferentziako curriculumak eskaini behar du. Edukien hautaketa horrek, euskal kulturaren berariazko osagaiak eskuratzearaz gain, bizikidetzaren eta kulturen inklusioa garatzen lagunduko du.

Kultur aniztasuna curriculumean

Euskal curriculumarekin batera, gainerako jatorri aniztetako kultura, ondare, balore eta bizi ohiturak ere lantzen ditugu. Eskola inklusiboa osatzen dugun neurrian pertsonarteko berdintasuna, justizia eta ekitatea bultzatzen ditugu gune demokratiko eta parte hartzaileak garatuz taldean bizitzeko eta jarduteko.

Pertsona eta kultur arteko bizikidetzak elkarrengandik ikasteko aukerak eskaintzen ditu eta, ibiliaren ibiliaz, historia eta memoria partekatua eraikitzen laguntzen du. Ikastetxea komunitate abegikor bihurtzen dugunean, kultur aniztasuna gogoki bizi duten herritarrek hezitzeaz gain, gizarte justuagoaren alde egiten dugu.



Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza

Delors-Unescok (1996) eta Europa Batzordeak (2006) egindako txostenak abiapuntu, Eusko Jaurlaritzako **Heziberri 2020** hezkuntza proposamenak *"Oinarrizko zehar konpetentziak"* eta *"Diziplina barruko oinarrizko konpetentziak"* garatzea du xede; hau da *"eguneroko bizitzaren esparru eta egoera guztietan arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar diren baliabide, gaitasun, prozedura eta jarrerak"*. Batzuetan, orokorrak dira eta, besteetan, Lehen Hezkuntzako diziplinekin lotuagoak daude.

Oinarrizko zehar konpetentziak	Oinarrizko diziplina barneko konpetentziak
Eguneroko bizitza egoerekin lotura dutenak	Eskolako diziplina-arloekin lotura dutenak
• Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia • Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia • Elkarbizitzarako konpetentzia • Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia • Norbera Izaten ikasteko konpetentzia	• Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia • Matematikarako konpetentzia • Zientziarako konpetentzia • Teknologiarako konpetentzia • Konpetentzia sozial eta zibikoa • Arterako konpetentzia • Konpetentzia motorra

OINARRIZKO ZE HAR KONPETENTZIAK



Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia

Helburu nagusia: Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

Helburu nagusia: Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza modu autonomoan antolatzeko.

Elkarbizitzarako konpetentzia

Helburu nagusia: Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea da, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako.

Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia


Helburu nagusia: Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea da testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta laneoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.

Izaten ikasteko konpetentzia

Helburu nagusia: Bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haiek sendotzea edo egokitzea da, haien gaineko balorazioaren arabera, bere burua etengabe hobetuz pertsona osorik errealizatzen.



Oinarrizko diziplina barneko konpetentziak	Arloak
Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia Konpetentzia honen helburu nagusia hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan komunikatzeko. Baita heziketa literarioa lantzea ere, nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzen laguntzeko.	Euskara eta Literatura; Gaztelania eta Literatura; Atzerriko Lehen Hizkuntza
Matematikarako konpetentzia Helburu nagusia jakintza matematikoa erabiltzea da, bizitzako beharrezkoak diren arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko.	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia Matematikarako konpetentzia Arterako konpetentzia Konpetentzia motorra
Zientziarako konpetentzia Helburu nagusia zientziaren jakintza eta metodologia modu koherente, bidezko eta zuzen erabiltzea da, fenomeno naturalak interpretatzeko, ulertzeko eta erabaki arduratsuak hartzeko bizitzaren esparru eta egoera guztietan.	Naturaren zientziak
Teknologiarako konpetentzia Helburu nagusia produktu eta sistema teknologikoak zentzuz erabiltzea eta garatzea da, jakintza teknikoak era metodiko eta eraginkorrean aplikatuta egoerak ulertzeko eta konpontzeko modu arduratsuan.	Naturaren zientziak
Konpetentzia sozial eta zibikoa Helburu nagusia nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutzea eta ulertzea da, gizarte-zientzien jakintzak, prozedurak eta metodologiak kritikoki erabiliz gizarte guztiz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta anitza lortzeko.	Gizarte Zientziak; Balio sozial eta zibikoak; Erlijioa
Arterako konpetentzia Helburu nagusia hainbat kultura eta arte adierazpenak ulertzea eta modu kritikoan balioestea da, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.	Arte Hezkuntza
Konpetentzia motorra Helburu nagusia da modu autonomoan, kritikoan eta sormena erabiliz norberaren eta gainerako pertsonen jardura fisikoa eta kirola egiteko ohiturak lantzea.	Gorputz Hezkuntza



TALENTUZ

sormena eta jakintza haurtzarotik

Talentuz programak ikasleen aniztasuna eta inklusioa du ardatz. Curriculum kritikoa, solidarioa, aberats eta malguaren bidez, ikasleen dohain eta ahalmenak modu pertsonalizatuan lantzen ditu, nazioartean ospe handia duten esperientzia eta teorietan oinarrituz (Montessori, Freinet, Pikler, Gardner, Rogoff, Vygotsky, Piaget, Giroux, Freire, Apple, Wells, CREA, Ikas Komunitateak, Succes for All, Development School Program, Reggio Emilia...).

Ikas Komunitatea

Talentuz programak bat egiten du Ikas Komunitateko xede nagusiarekin, hau da, eskola eta bere testuinguruaren eraldaketa sozialarekin eta horretarako proposatzen dituen estrategia metodologiko edota jardue-ra bereziekin, besteak beste, elkarrekintzako taldeekin, tertulia curricular eta literarioekin, herritarren parte hartzearekin eta eten gabeko prestakuntzarekin.



Eskolako proiektuak

Eskolan garatzen ditugun proiektu orokorrek zein espezifikoek, lotura zuzena dute Talentuz programarekin. Elkarbizitza, hizkuntza, afektuak, zientzia, natura, artea, herriko jai edota kultur ekintzak... guztiak lantzen dira Talentuz programako ikuspegi pedagogikoaren babespean, betiere ikaslearen garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko asmoz.

Elkartasunaren curriculumak

Elkartasunaren eta demokraziaren aldeko curriculumean, ikasleak "hausnartzaile kritikoak" bihurtzen dira. Badakite ezagutzak edo esanak ez direla neutroak eta talde edo pertsona jakinen aldeko edo kontrako interesekin lotzen direla. Horregatik, eguneroko bizitzan kezka larria sortzen dituzten gaiekiko enpatia, sentsibiltatea eta konpromiso etikoa dute; izan ere, elkartasunaren curriculumak "ezagutzaren kontsumitzaile" izatetik "ezagutza eta esanahiaren sortzaile" izatera bultzatzen ditu ikasleak eta horretarako beharrezkoak diren jakintza eta praktikak garatuz.






Elkartasunaren curriculumaren lan eremuak

1. Elikagaien ekoizpen zikloak eta kontsumoa
2. Uraren garrantzia
3. Patriarkatua eta emakume eta gizonen arteko harremanak
4. Soinekoak eta gorputzaren apainketa
5. Etxebizitza eta hiriak
6. Migrazioak, jaioterritik irtetzeko arrazoiak
7. Osasuna eta pertsonen arteko harremanak
8. Lurra, eguzki sistema eta unibertsoa
9. Lurreko bizitza
10. Energia iturriak
11. Komunikabide eta teknologiak
12. Arteak, literatura eta musikaren sorkuntza
13. Herriko eta inguruko historia, ohiturak eta kultura
14. Lanbide eta norberaren interesak
15. Etika, boterea eta gobernantza

Aniztasunaren trataera

Eskola inklusiboan ezinbestekoa da beharri-
zan handiago duten ikasleentzat baliabide
gehiago eskaintzea hezkuntzako helburuak
bete ditzaten. Inklusioaren ikuspegiarekin
bat eginez, laguntzak ohiko gelan gauzatzen
dira ikasle eta irakasleek elkarri lagunduz, bo-
luntarioak gelan parte hartuz, senideak ikas-
tetxearekin elkarlanean arituz edota komuni-
tateak eskolaren alde jardunez.

Aniztasunaren trataerak beti du helburu
berbera, alegia, ikasleen autonomia eta ikas-
teko gaitasunak suspertzea eta, horrekin ba-
tera, ikasketa jardueretan nagusien eta hez-
kuntza komunitateko eragileen inplikazioa
handitzea.





Ikasleen arteko elkarlana

Talde lana eta jolasa, kooperatiboa edo interaktiboa, ezinbestekoak dira ikasleek mundua modu kritiko eta solidarioan ulertzeko, nortasun askea eraikitzeko eta zentzudun jakintzak garatzeko. Elkarlanean, jokabide sozialak, emozionalak eta kognitiboak jartzen dira jokoan arraza, genero edota egoera sozial ahulagatik baztertuak diren pertsonen alde jokatzuz; horregatik, Lehen Hezkuntzak ikas egoera ugari proposatzen ditu talde lanean aritzeko parekideekin, ikasle nagusiekin edota helduen laguntzarekin.

Ikasleen ebaluaketa

Bizitzarako oinarritzko konpetentzien araberako ebaluazioak bizitzako egoera konplexuak simulatzen dituen zereginak planteatzen ditu eta umeak ikasitakoak bizitza errealean aplikatzen dituen zehaztuko du. Horregatik, ikasleak askotariko jakintzak

erabiltzen dakien egiaztatu behar da, hau da, ikasgelan landutako jakintzak bestelako testuinguruetako egoerak interpretatu eta ebazteko erabiltzen dakien ikusi behar da. Ebaluaketa, beraz, jarraia eta hezitzailea izan behar da eta, besteak beste, ondoko alderdiak hartuko ditu kontuan:

- ✓ Senideen parte hartzea bultzatzea: balorazioak adostu, informazioa elkarrekin trukatuz, jakinaren gainean egon...
- ✓ Ikasle guztienganako itxaropen eta aurreikuspen baikorrak izatea eta esplizituki jakinaraztea ikasle eta senideei.
- ✓ Ikasleekin batera adostea egindako lanaren balorazioa eta horrekin batera ikasleen autoebaluazioa eta autoerreflexioa bultzatzea.
- ✓ Ikaslearen lan desberdinak baloratzea: ahozkoak, idatzizkoak, sormenezkoak, ikerketak...
- ✓ Ikasleen lan egiteko modu desberdinak aintzat hartzea: lan kolaboratiboa, bakar-kakoa, talde handikoa...
- ✓ Ikasleen adimen eta trebetasun anitzak baloratzea: ideiak, adierazpenak, sormena, kidesuna, prestutasuna, esfortzua, problemen ebazpena...
- ✓ Egindako lanaren aspektu positiboak, ikasitakoak eta ondo egindakoak goraipatzea.
- ✓ Talde heterogeneoetan eta guztiak elkarrekin lan egiteko egiturak eta aukerak ziurtatzea.



Ebaluazioa konpetentzien ikuspegitik

Oinarrizko konpetentziak

Zeharkakoak eta diziplinartekoak, biak, ebaluatu behar dira, zeharkakoak diziplinakoen barrenean ebaluatzen dira.

Helburuak eta edukiak

Helburuek eta edukiak hiru motatako jakintzak barnebiltzen dituzte: adierazpen edo kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Hiru horietatik prozedurazkoak eta jarrerazkoak lehenesten ditugu.

Ebaluazio irizpide eta lorpen adierazleak

Helburuak zein neurritan lortu diren jakiteko erabiltzen diren datuak dira.

Kalifikazioa

Kalifikazioak helburu eta edukietako jakintza mota bakoitzak duen garrantzia zehazten du.

Ebaluazio teknikak

-Heteroevaluazioa: irakasleak (senideak, kanpoko ebaluatzaileek) ebaluatzen du.

-Koevaluazioa: berdinen edo ikasleen arteko ebaluazioa da.

-Autoevaluazioa: ikasleek haien burua ebaluatzen dute.

Ebaluazio tresnak

Datuak batzeko erabiltzen diren dispositiboak dira: behaketa zuzenak, ikasleen produkzioak, galdetegiak, errubrikak, portafolioak, froga idatziak eta ahozko aurkezpenak dira, besteak beste.



Hezitzaileak

Irakasle edo hezitzaileak, senide eta gainerako helduekin batera, umearen alde egiten du eta haren erreferentzia-esparru egonkor eta afektiboa da, laguntza eskaintzen dio beharrian eta gogoak asetzeko eta ohitura sozialak eskuratzeko. Umeek esaten dutena (ahoz, keinuz, isilunez...) entzun, ulertu eta maitasunez babesteaz gain, kultur jakintza anitzen bitartekari kritikoa da. Irakaslearen lana, batik bat, bideratzailea, bitartekaria, gidaria edo laguntzailea izatea da, berari dagokio, ikasleekin batera, ikas prozedurak eta ikasketak testuinguruak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea eta ebaluatzea. Hori gauzatzeko bermerik hoberena, aditu eta irakasleen arteko elkarlana bultzatzea da, eragile bien jakintzaren uztartetan sortzen diren sinergiak aprobetxatuz. Irakasleen arteko lana bultzatzeko ondoko egiturak sortu ditugu: mailako eta zikloko koordinazioak, konpetentzia mintegiak, eskola barruko topaketa pedagogikoak, batzorde pedagogikoa, koordinatzaile batzarra...



Metodologia

Demokrazian, pentsamendu kritikoan eta elkarrekintzan oinarritzen den pedagogiarentzat, umeak dira modu aktiboan eta testuinguru anitzetan esperimendatzeko, hausnartzeko, jakintza eskuratzeko eta autoebaluatzeko ikasten dutenak. Pedagogia kritikoaren eraginez, norbanakoaren kontzientzia kritikoa areagotzeaz gain, inguruko egoerak hobetzeko eta eraldatzeko jarrera eta jokabideak lantzen dira, jendarte justuago eta berdintsuago lortzeko bideak eraikiz. Horregatik, eskolak zaindu behar ditu eskolaz barne zein eskolaz kanpo haurrek bizi dituzten esperientziak, eguneroko arazo eta erronka nagusiak konpontzeko jakintzaren balioa aitortuz. Horretarako:

- ✓ *modu integratuan erabiltzen ditugu adierazpenezko, prozedurazko eta jarrazko edukiak.*
- ✓ *ikasleak gogoz parte hartu behar du eza-gutzak bilatzeko, ikasteko, probatzeko, haien gainean hausnartzeko, aplikatzeko eta komunikatzeko prozesuetan.*
- ✓ *ezinbestekoa da, besteak beste, zereginen arabera lan egitea, jakintzak mobilizatu beharreko baliabideetat hartzea, ikaskuntza problemetan edo proiektutan oinarritzea, komunitateari zerbitzuak eskaintzea eta ebaluatzeko forma berriak ezartzea.*




Senideen lankidetza

Umeak etengabe ikasten ari dira senide, heldu eta gainerako parekideekin; horregatik, etxe, auzo eta eskolako jardueren arteko koherentziak mesede egiten die haien nortasunari, ongizate emozionalari eta garapen pertsonal orekatuari. Zentzu horretan, garrantzitsua da senideen lankidetza Hezkuntza Proiektua diseinatzeko, garatzeko eta erabakiak hartzeko orduan. Ildo beretik, senideen prestakuntza ere ezinbestekoa da aipaturiko lankidetza zein senideen garapen pertsonala bultzatzeko.



Herri Hezitzailea

Kalea, herria eta etxea dira, eskolarekin eta hedabideekin batera, ikasleen eguneroko bizitza garatzeko testuinguruak. Eragile guztiak elkarrekin lanean aritzeak eskolaren eta herriaren ezauzgarriak indartzen ditu eta herritarren heziketa integrala erdiesteko funtsezko elementuak dira. Izan ere, Herri Hezitzailea bihurtzeko lekuan lekuko komunitateak eta eskolak etengabe jardun behar dute elkarlanean, eta, alde horretatik, beharrezkoa da bien arteko komunikazio-bideak sortzea. Komunitateak egoera errealetan ikasteko aukera ematen du, bertako udal, gizarte, kultura eta produkzio eta zerbitzuen bitartez. Herri hezitzaileko ekimen guztien ardatza izango da pertsonontzako bizitza eta bizikidetzaren eredu bat eraikitzea, zenbait balio, hala nola elkartasuna, errespetua, tolerantzia, parte hartzea, erantzukizuna eta auzi publikoekiko konpromisoa, oinarri hartuta. Hala, herritar aktibo eta konprometituak sortzeko oinarriak eraikitzen dira, eta hori ezin hobea da gizarte-ongizatea lortzeko.



Talentuz LABORATEGIAK

Lehen Hezkuntzan ikasleen gaitasunak indartu egiten dira eta horrekin ikaskuntzaren exijentziak ere bai. Hortaz, Lehen Hezkuntzako gelak Haur Hezkuntzako jarraipena badira ere, beste modu batera antolatutik daude eta laborategien zentzua, egitura eta itxura dituzte. Izan ere, laborategiaren ikusmirak ikaslea bihurtzen du protagonista eta irakasle zein gainerako eragileak haien gidari edo laguntzaile. Gure kasuan hiru gela edo laborategi nagusi antolatu ditugu: Hizkuntzen laborategia, Zientzien laborategia eta Arteen laborategia.

Laborategiak guztiz loturik daude haurtzaroren irudiarekin eta irakas-ikas prozesuez ulertzen dugunarekin. Haurrek adierazpen, sormen eta komunikazio gaitasun sendoak dituztela uste badugu, laborategiek autonomiaren garapena, esplorazioa, erronken ebazpena, sentsibiltatea, jakin-mina, fantasia eta heldu zein umeen arteko lagun giroa garatzeko aukera ugari eskaini beharko dituzte.



Laborategien ezaugarri orokorrak

Talentuz laborategi bakoitzak beraren ezaugarri propioak baditu ere, guztiek daukate oinarrizko aspektu bateratuak.

✓ Esanguratasuna

Laborategiak ikas gune interesgarriak dira, ikasketa berriak eskaintzeaz gain, umeen interes eta ideiekin bat egiten dutenak, heldu eta ikaskideen laguntzarekin trebetasun komunikatiboak, erlazionalak eta ludikoak bultzatuz “norberaren zaintza” eta “besteena zaintza” ahalbidetzen dituztenak.

✓ Autonomia

Haurren gaitasun, adimen eta ontasunean sinesten dugunez, autonomia fisikoa, intelektuala eta etikoa bultzatzen dugu. Horregatik, laborategiak antolatzen ditugunean irisgarritasuna, argitasuna, estetika eta independentzia sustatzeko elementuak kontuan hartzen ditugu.

✓ Interakzioa eta komunikazioa

Besteekin harremanak ditugulako, bestengandik ikasten dugulako eta besteekin partekatzen dugulako, gara garen modukoak. Laborategietako ikas guneen antolaketa elkarrekintza, jolasa, elkarriketa, elkarrekin topo egitea, intimitatea, eta abar bultzatzen du.

✓ Aniztasuna


Eskolak ziurtatu egin behar du aniztasunaren ikuspegia espazio, material eta denboretan. Kultura, pentsaera eta harreman aniztasunari erantzuteko berariazko jarduerak eta ikas guneak prestatu behar ditugu.

✓ Bizigarritasuna eta estetika

Armonia, edertasuna eta gozotasuna eskaintzen dituzten espazioek ongizatea eta sormena bultzatzen dituzte. Edertasunaren ikuspegiak inguruarekiko jarrera enpatikoa eta sentikorra adierazten du eta zentzumen eta buruarentzat oreka eta gozamena bilatzen ditu.

Hizkuntzen laborategia

Hizkuntzen laborategia hizkuntzak dituen lau dimentsioak lantzeko prestatuta dago, hau da, Mintzarena, Entzumena, Idazmena eta Irakurmena. Proiektu, arazo egoe-
ra eta jarduera espezifikoaren bidez lantzen dira lau dimentsioak eta ikasgelaren egitura ere horretara egokitzen da: agora edo berba gunea, liburutegia eta dokumentazio gunea, idaz gunea, entzun gunea eta pentsa tokia.




Zientzien laborategia

Zientzia laborategia metodologia zientifikoan oinarritzen da eta esperimendazioa zein ikerkuntza garatzeko prestatuta dago; hortaz, eztabaida, dokumentazio, esperimendazio, natura-gune eta pentsa tokiaz gain, material ugari aurkituko dugu ikertzeko eta metodo zientifikoaren bitartez esperimenduak egiteko. Zientzia laborategiak eskolako terrazekin komunikaturik daude eta terrazotan hazitegiak, landareak, plubiometroak, haize neurgailuak edota bestelako tramankuluak ditugu ingurunea ulertzeko.



Arte laborategia

Arte laborategian bat egiten dute heziketa plastikoak, heziketa musikalak eta heziketa fisikoak. Arlo bakoitzak bere egitura eta helburu espezifikoak baditu ere, laborategi artistikoan hiruren arteko lan-kidetza ere ematen da. Horretaz gain, arte laborategiaren beste ezaugarri garrantzitsu bat arlo plastikoari lotutako "taileristaren" figura da, zeinak musika eta gorputz hezkuntzako irakasleekin batera osatzen duen arte laborategiko irakaslegoa.



Laborategietako hezkuntza proposamenak

Hezitzaileak/irakasleak dira gelako jarduerak gauzatzeko denborak, espazioak, taldekatzeak edota materialak aukeratu eta antolatzen dituztenak. Lehen Hezkuntzako laborategietan egingo diren jarduerarik ohikoenek lotura zuzena dute ikuspegi inklusiboarekin eta talde lanarekin (elkarrekintzako taldeak¹, talde kooperatiboak², ikaslagunak³...), ikerketa proiektuekin (metodo zientifikoa⁴...), IKT-en erabilerekin (aplikazioak⁵...), eztabaidekin (tertulia literario eta kurrikularrak⁶, aurkezpenak⁷...), arazoetan oinarritutako ikaskuntzarekin (erronkak, arazo egoerak⁸...) edota curriculum moldaketarekin (IDU⁹, curriculum aberastea¹⁰...). Horrez gain, eskolako gainerako proiektuak ere (EA21, zientzia, normalkuntza, eleaniztasuna, sare-hezkuntza, STEAM, inklusioa...) gela-laborategietako ohiko jardueretan txertatzen ditugu.

1 Elkarrekintzako Taldeak

Elkarrekintzako taldea ikasgela antolatzeko era jakin bat da. Elkarrekintzako saioetan bost/sei ikaslerekin osaturiko taldeak antolatzen dira eta talde bakoitza pertsona nagusi baten ardurapean egoten da (irakaslea, senidea, boluntarioa...). Ekintza gauzatzeko tarte betetzen denean (20-30 minutu) taldekideak beste ekintza eta talde batera joaten dira; bertan beste jarduerara bat egin eta beste hezitzaile batekin egongo dira. Ikasle guztiek egiten dituzte jarduera guztiak, baina talde txikietan.

2 Talde Kooperatiboak

Talde kooperatiboak edo ikasketa kooperatiboak (IK/KI) hezkuntza inklusiboaren barnean kokatzen dira. Ezaugarri desberdineko 4-5 ikaslerekin osatutako lan taldeak dira eta ikasle bakoitzaren egitekoak zehaztuta egoten dira. Estrategia horrekin ikasle guztiak parte hartzeko aukera ziurtatzen da eta, guztien artean sortzen diren hartu emantetan ezagutzak barneratzeaz gain, talde lanean jarduten ere ikasten dute.

3 Ikaslagunak

Ikaslagunen estrategiak ikasleen arteko laguntzak bultzatzen ditu. Normalean goiko mailako ikasleak (5. eta 6. mailak) izaten dira txikiei irakurketan edo matematikan laguntzen dietenak. Eskolako ikasleek gain, institutuko ikasleek ere parte hartzen dute programan.

4 Metodo Zientifikoa

Zientziek metodo zientifikoa (hipotesiak, frogak eta konklusioak) erabiltzen dute ikerketa lanak garatzeko eta argitaratzeko. Zientziaren egiteko era horiek jarraituz eztabaida guneak sortzen dira gelan gainerako taldekideei lanaren berri emateko eta iritzi desberdinak partekatzeko. Eztabaida horietan garrantzitsua da txosten idatziak edota bestelako frogak argumentu zientifikoekin defendatzea.

5 IKT-en erabilera

IKTek aukera anitz eskeintzen dute informazioa kudeatzeko, komunikaziorako edota elkarlanerako (azalpenak, aurkezpenak, testu multimediak, bideoak, konferentziak...). Google Drive, Forms, Slides, Docs, Google Classroom, Hangouts meet eta gainerako aplikazioen bidez, ikasleek aukera ugari dituzte etxetik lan egiteko, talde lana partekatzeko eta askoz gauza gehiago egiteko. Aplikazio horiez gain, Ingelesa lantzeko Milton plataforma erabiltzen dugu eta Matematika lantzeko Matific.



6

Tertulia Literarioak

Tertulia literario dialogikoa irakurketa partekatzeke estrategia da; irakurlea, testua eta gainontzeko irakurleen arteko harremanak sortzeko modu jakina. Tertulietan ikasle guztiek aukera dute iritziak emateko eta besteena entzuteko, baita elkarren arteko eztabaidak eta elkarrizketak sortzeko ere. Tertulia batzuetan senideek ere parte hartzen dute ikasleekin batera, liburu berbera irakurriz eta komentatuz.

8

Arazo egoerak

Arazo eta erronketan oinarritutako ikaskuntza-ren helburua konpetentziak garatzea da. Egoera errealetan kokaturiko erronkak curriculumaren ikasgai bihurtzen dira eta, horrek, ikasleen konpromisoa handitzeaz gain, goian azaldutako Curriculum integral edo solidarioarekin bat egiten du, eskola eta bizitza elkarlotuz.

7

Aurkezpenak

Aurkezpenak talde lanarekin edota bakarkako lanarekin loturik daude eta egungo metodologia aurreratuenetan erabiltzen dira. Aurkezpenetan ahoz-kotasunak (doinua, keinuak, gorputz adierazpena...) lehenetsuna badu ere, bestelako soportek ere (grafikoak, irudizkoak, musikalak...) oso erabilgarriak dira. Aurkezpenak ikas arlo guztietan lantzen dira.

9

Ikaskuntzako Diseinu Unibertsala (IDU)

Ikaskuntzako Diseinu Unibertsalaren xede nagusia ikasleek ikasteko eta parte hartzeko dituzten hesi guztiak gainditzea da (fisikoak, sentzorialak, afektuzkoak, kognitiboak edota sozialak). Horretarako, ikasleen ezaguerarekin bat datorren curriculumak garatzen du eta kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera berberak bermatzen ditu.

10

Curriculum aberastea

Curriculum aberastearen helburuetako bat adimen gaitasun handiko ikasleei ohiko jardunean erantzun egokia ematea bada ere, gelako ikasleen aniztasuna aintzat hartu eta hezkuntza proposamen aurreratuak guztientzat egitea ere bere eginkizunetako beste atal bat da. Horretarako, estrategia ugari pres-tatzen dira ikasleen zaletasun eta gaitasunak maila gorenean garatzeko.



Laborategietako denborak

Hiru dira gelako funtsezko denborak, alegia, ume bakoitzaren denbora pertsonala, taldeko jardueren denbora eta ikastetxearen denbora instituzionala.

Haurren denbora pertsonala sentimendu eta emozioekin lotutako denbora da. Afektuzko denbora dentsua da, lasaia, bizitzaren eta gertakizunen kontakizuna eraikitzeko egokia, norberarengan eta besteengan segurtasuna eta konfiantza ematen duena. Helduekin dituen harremanek finkatuko dute denbora horren nolakotasuna, eta horregatik ikasle bakoitzari bere erritmo pertsonala garatzeko jarduerak prestatu behar dizkiogu. Denbora propio horretan oinarrituz umeek ikasiko dute gainontzeko denbora biak kudeatzen, hau da, taldeko jarduerak eta eskolek instituzio bezala dituzten denborak kudeatzen.

Laborategietako materialak

Ikas jardueretan erabiltzen diren material guztiek bat egiten dute eskola inklusiboaren irizpide pedagogikoarekin. Ahal den neurrian naturalak dira, jasangarriak, jardueretara egokituak, sormena eta erronkak bultzatzen dituztenak, bakarka zein taldean lan egitekoak, arrisku gabeak, garbiak, doto-reak... Espazio bakoitzak ondo babestutako eta ordenatutako material espezifikoak du.



EGUN BAT LABORATEGIETAN

HIZKUNTZAKO LABORATEGIA: BERBAZ-BERBA

Etiket eskolara aldatzea momentu delikatua da ikasleentzat, horregatik irakasleak zain egoten gara gure ikasleei harrera egiteko eta gure keinu zein hitzekin egun onak emateko.

Egunaren hasierak mila istorio kontatzeko aukera ematen du, beti izaten da berriren bat partekatzen; lehenbiziko minutuak garrantzitsuak dira arropak erantzi, motxilak jaso, liburuak hartu eta ondokoarekin berba egiteko. Irakasleontzat oso momentu delikatua da, adi egoteko unea, alegia, ume bakoitza nola dagoen eta nola etorri den jakiteko abagune aproposa. Horrez gain, une aproposa da, baita, gurasoek dakarten informazioa ezagutzeko ere.

Gelako asanblada

Barrenak lasaitu eta laguntxoekin egon ondoren, goizeko asanblada egiten dugu. Tutore bakoitza bere gelako ikasleekin batu eta egun osoko plangintza egiten da. Zein dira gaurko egitekoak? Igerilekura joango gara? Institutuko ikasleak etorriko dira? Gaur Arte izango dugu?



Has gaitezen lanean!!!

Egitekoak argitu ondoren, lanean hasten gara. Hizkuntza gela bost edo sei txokotan banaturik dago; liburutegia, pentsateka, bateragunea, lan gidatuaren espazioa, sormen txokoa, gune digitala eta jarduera autonomoen eremua.

Hasiera zikloan, adibidez, gelako bi talde "lan gidatua" lantzeko gunera joaten dira, jarduerak egitera irakaslearen laguntzarekin; besteak aldiz, gainerako espazioetan banatzen dira: liburutegian, pentsatekan, gune digitalean... testuak sortzeko, irakurtzeko, hitzekin jolasteko eta abar. Gutxi gora behera espazio bakoitzean hogeita hamar berrogei minutu eman ondoren, beste espazio batera joaten dira.

Tertulia literarioak


Tertulia literarioak, euskaraz zein gazteleraz, hizkuntzako gela guztietan egiten dira aste-oro. Horretarako 45 minutu edo 90 minutu erabiltzen dira. Tertuliak egiteko ikastetxean erosten ditugu liburuak eta gero gelaz gela txandakatzen dira.

Eguneroko irakurketa

Hizkuntzen trataera integrala aintzat hartuz, egunero, gutxienez, ordu erdiz irakurtzen dugu; hainbat motatako testuak erabiltzen dira lanerako zein haien gozamenerako.

Elkarrekintzako taldeak eta ikaskuntza kooperatiboko taldeak

Elkarrekintzako taldeak, matematikan eta hizkuntzan antolatzen ditugu. Hizkuntzan egiten ditugunean hiru taldetan banatzen gara; talde bat irakurketaz arduratzen da, beste bat idazketaz eta hirugarren bat gramatikaz edo digitalizazioaz. Talde hauek, irakasleen laguntzarekin, senideekin edota DBHko laugarren mailako ikasleekin antolatzen dira. Aldiz, ikaskuntza kooperatiboko taldeak direnean irakasle tutorea bera izaten da talde guztien ardura hartzen duena.



Bitakora Koadernoan

Bitakora koadernoan ikaslearen esparru pribatu eta intimoaren gordailua da. Bertan, ikasleek gustuko dutena idazten dute eta ikasturte osoko edota zikloko lanak barne bilduz, ikasleen bizipenen "memoria sentimentala" osatzen dute.

Gelako koadernoan

Gelako koadernoan, hainbat testu generotako hainbat idatzi ekoizten da, autobiografiak, ipuinak, albisteak, etab. Lan-dutako testuekin, ondoren, bildumak, liburuxkak edota bestelako ekoizpenak egiten dira, adibidez Lab-Book-ak edota Power point-eko aurkezpenak, besteak beste.

Gelako blog-a

Gelako blog-ean eskolako egunerokoan sortzen diren albisteak idazten ditugu. Blogaren bidez, teknologia digitalak erabiltzen ditugun bitartean, eskolako mugak gainditu eta senide eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzen gara.

Ahokotasuna

Gelan egiten diren jarduerak anitzek dute eragin zuzena ahokotasunean. Lab-book-ek, ppt-ek, testu idatziek... guztiek izaten dute azken produkzioa eta horren ahozko aurkezpena. Horiez gain, berariazko beste jarduerak batzuekin ere lantzen dugu ahozko adierazpena, alegia, bertsolaritzan, ipuin kontaketeetan, eztabaidetan, eta abar.



ZIENTZIAKO LABORATEGIA: IKERKUNTZA

Zientzia geletan Matematika eta Natur zientziako gaiak lantzen ditugu. Diziplinarteko proiektuak lantzen ari bagara, bi ikasgaiok beste ikasgai edo arlo batzuekin batera lantzen dira, beste batzuetan, aldiz, diziplina barruko proiektu edo ikas unitateen bidez lantzen dira.

Zientzia gelako eguna lasai hasten dugu, ikasleek badakite nolakoak diren errutinak, eta gelan sartuaz batera, 5-10 minutu izaten ditugu egunak dakarrena komentatzeko. Hasiera zikloan, tarte luzeagoa hartzen dugu ikasleek elkarrekin egoteko eta etxetik dakartzaten kontutxoak elkarrekin partekatzeko. Ondoren, irakasleak azaltzen du zer egingo dugun, zein izango diren egun horretako erronkak eta ikasleok nola antolatuko garen espazio eta txokoetan.

Zientzia gela zenbait espazioetan banaturik dagoenez, ikasleek, lanaren arabera, espazio desberdinak erabiltzen dituzte, errotazioak eginez egunean zehar edota astean zehar. Pentsategia, sormen txokoa, esperimentaziorako gunea, eraikuntzak, gune digitala, bateragunea eta kanpoko terrazak dira zientzia gela osatzen duten espazio eta txokoak. Horiez gain, eskolako ortua edo baratza ere erabiltzen dugu.

Egin beharren arabera eta jardueren arabera (esperimentuak, ikerketak, proiektuak, aurkezpenak...) gelako espazioetan lan egiteko era ugari erabiltzen dugu.

- a. Talde handiko lana: guztion artean eginiko lanak dira. Adibidez, gelako asanbladak, tertulia curricularrak, gai baten azalpen orokorrak, ikerkuntza proiektuen plangintza, ikasleen azalpenak, eztabaidak, arauak, kanpotik datozen eragileen hitzaldiak, eta abar. Talde handian lan egiten dugunean gelako kohesioa lantzen da eta guztiok ikasgelako partaide garrantzitsu garelako sentitzeko aukera eskaintzen dugu.
- b. Errotazioak eta lan autonomoa: modalitate honetan ikasle batzuek irakaslearen gidaripean lan egiten dute eta beste batzuek, aldiz, lan autonomoan jarduten dute. Irakaslearekin lana amaitu ondoren, txandakatu egiten dira.
- c. Elkarrekintzako taldeak: ikasleak taldean egoten dira lanean pertsona nagusi baten gidaripean; lana amaitu ondoren beste talde batera joaten dira.
- d. Lan kooperatiboa: ikasleek ikasketa kooperatiboaren teknikak erabiltzen dituzte jarduerak egiteko.
- e. Bakarkako lana: norbanakoaren hausnarketa eta barneratze prozesuak bultzatzeko erabiltzen dira bakarkako jarduerak.

Egunaren amaieran bateragunean batzen gara eta bertan guneetan egindakoaren errepasoa egiten da.





ARTEKO LABORATEGIA: SORMENA

Talentuz proiektuak egin duen apustu estrategikoa da eta horretarako Arte gela edo sormen laborategiak sortu ditugu. Lehen Hezkuntzan hiru arte gela daude, bat ziklo bakoitzeko, eta gelak zenbait espaziotan banatzen dira: tenpera txokoa, eraiketak, marrazketa, pintura, plastilina-buztina, gune digitala... Ikasleek bi saio izaten dituzte astero eta, ohiko ordutegia arratsaldez bada ere, batzuetan goizez ere erabiltzen dira arte gelak.

Arte gela edo sormen laborategian egiten ditugun lanak Arropaineko Arraguan "Hezkuntzaren Begirakunea" proiektuan irakasleok lantzen ditugun proposamen artistikoarekin lotzen dira maiz; modu horretan, eskualdean gauden eskolok antzeko lan artistikoak garatzen ditugu.

Gelan lan egiteko moduak ugariak dira, ikasleen aniztasunak ere horrela eskatzen duelako; ikasle batzuk buru belarri murgiltzen dira haien proiektuetan; beste batzuek, aldiz, laguntza gehiago behar izaten dute.

Dena dela, sormen proposamen ugariak egiten ditugu ikasturtean zehar; noizbehinka lan askeak dira, bestetan, esan dugun modura, Arraguak eskainitako ildoak lantzen ditugu; horietan guztietan talde lana uztartzen dugu bakarkako lanarekin eta beti ahalegintzen gara amaitu ondoren egindako lana kideekin edota herriarrekin partekatzen erakusketen bidez.

Arropaineko Arraguako ikuspegi artistikoarekin bat eginez, guk ere uste dugu artea mundua hobetzeko ezinbesteko tresna dela eta komunitatearen mesedetan egin behar dela, hau da ikuspegi herritarra edo komunitarioa mantenduz.

Gure arte geletan nabarmena da bizipoza; ikasleek gustura egiten dute haien lana, giroa lasaia izaten da, aukera ugari izaten dugu musika entzuteko, tresna desberdinak erabiltzeko eta gure arteko eztabaidak bultzatzeko; baina batez ere, arte gelan murgiltzen garenean barruan ditugun sentipen, ideia eta balioak askatzeko bideak sortu eta eraikitzen ditugu.

PROIEKTUAK

LIBURUTEGI TUTORIZATUA

Eskolako liburutegi tutorizatuak irakurketarako, aisialdirako eta sozializatorako gune aproposa da. Bere helburu nagusia irakurketarako zaletasuna bultzatzea, informazioa biltzea eta ikasketak edo etxeko lanak egiteko espazio lasai eta abegikorra bihurtzea da.

ESKOLA AGENDA 21

Ingurugiroa zaindu eta hobetu nahi duen eskola proiektua da. Naturarekiko konpromisoa nabarmena da eskolan eta horren adibideak dira, besteak beste, eskolako ortua, ikasle berdeen asanblada, gurasoen parte hartzea, curriculumaren egokitzapena eta udalarekin zein ikastetxeekin daukagun elkarlana.

EUSKARAREN UNIBERTSOA

Euskara da gure eskolako hizkuntza nagusia, euskaraz bizi gara eta euskara da gure ikasketaren ardatza. Honetara bideratzen ditugu zenbait egitasmo: Hizkuntza Normalkuntza, ikasle etorkinen euskaratze programa, senideen alfabetatze ikastaroak...

INGELES GOIZTIARRA

Haur Hezkuntzan lau urtetik aurrera lantzen dugu ingelese. Ingeles goiztiarraren bidez adin txikikoek astiro astiro doaz ingelesko lehenbiziko hitzak eta doinuak ikasten eta erabiltzen.

ZIENTZIA PROIEKTUA

Ikasteko ohiko diren liburuen mugak gainditu eta esperimentazioaren bidez zientzia mundura hurbiltzen gara proiektu honen bidez. Horretarako prestatu ditugu zientzia gela/laborategiak.

ESKOLA 3.0

Teknologia digitalak menperatzea funtsezko ildo estrategikoa da eskolarako. Horregatik, urtez urte ari gara prestakuntza eta erabilerran sakontzen eta azpiegiturak hobetzen.

SCIENCE IN ENGLISH

Laugarren mailan hasi eta seigarren mailaraino "Naur Zientziak" arloko eduki batzuk ingelesez lantzen ditugu. Proiektuaren bidez ikasleek ingelese modu erraz eta naturalean ikasten dute, naturako gaiak bizitza hurbilekoak baitira.





ESCUELA PÚBLICA DE
LEKEITIO
COMUNIDAD
DE APRENDIZAJE

TALENTUZ

EDUCACIÓN PRIMARIA





Nuestra escuela es inclusiva porque favorece la diversidad y la solidaridad, porque los derechos humanos y la libertad guían su práctica y porque defiende aquellos valores y prácticas que superan las desigualdades y la exclusión.

En nuestra escuela las niñas y los niños son los protagonistas de la educación, niñas y niños con sendas capacidades, ideas, sentimientos y fantasías que investigan y recrean constantemente el mundo, y que de manera crítica, activa y solidaria están dispuestos a formar parte de la sociedad que les ha tocado vivir.

PROYECTO EDUCATIVO de la ESCUELA PÚBLICA DE LEKEITIO

El Proyecto Educativo de la Escuela Pública de Lekeitio se compone de cuatro programas:

TALENTUZ: creatividad y sabiduría desde la infancia

Un programa que recoge los saberes y conocimientos necesarios para el desarrollo de las capacidades y responder a las necesidades y deseos de todo el alumnado.

ELKARREKIN: convivencia armónica exenta de violencia

Un programa que recoge las estrategias necesarias para la conversión de la escuela en un espacio de convivencia y motor de transformación social.

DENONA: participación solidaria en la escuela y la comunidad


Un programa que impulsa la participación y la colaboración de familiares y demás agentes sociales en la construcción de la comunidad escolar.

PRESTATU: formación permanente y de calidad en la sociedad del conocimiento

Un programa creado para favorecer el desarrollo personal y social de la comunidad educativa.



SOMOS UNA ESCUELA DEMOCRÁTICA



Potenciamos la transformación social y la justicia mediante una pedagogía y educación críticas

Aspiramos a ser una escuela democrática, crítica y transformadora, y nos apoyamos en teorías educativas de prestigio y diversas maneras de entender el mundo para superar las desigualdades entre las personas y, de esa manera, participar en la construcción de una sociedad amable, solidaria y libre.

Compartimos la ilusión, la esperanza y la alegría de vivir

Una escuela apacible, acogedora y atractiva impulsa el bienestar, la consideración y el apoyo entre todas las personas de la comunidad educativa, compartiendo la alegría por participar en un proyecto educativo atractivo e ilusionante.

Favorecemos la igualdad y la diversidad

Como somos una escuela inclusiva, protegemos de manera prioritaria a los niños y niñas, familiares o personas que por razones de sexo, religión, cultura, etnia o cualquier otra característica sufre procesos de exclusión.

Apoyamos la solidaridad, el entendimiento y el respeto intercultural

Valoramos de manera positiva todas las manifestaciones culturales que conviven en la escuela, nos ayudamos mutuamente y aprendemos unas de otras.

Impulsamos una sociedad justa, pacífica, solidaria y sostenible

Vivir juntos, compartir inquietudes, sumar alegrías y cuidarnos forma parte de la cultura de nuestra escuela, por ello somos una comunidad educativa atenta, amable y gozosa, que educa a niños y niñas en la diversidad y la sostenibilidad.

Somos euskaldunes y pertenecemos al mundo

En la medida en que somos parte de la Escuela Pública Vasca secundamos los retos sociales, culturales, económicos y políticos de los ciudadanos vascos y lo hacemos en euskera. No obstante, como también estamos abiertos al mundo, participamos de las ansias, sueños y dificultades que mantienen en vilo a otras culturas, etnias o personas.

Luchamos contra la violencia machista defendiendo la coeducación y la convivencia.

Reivindicamos la paridad y la equidad entre niñas y niños, por eso luchamos contra la violencia de género y a favor de la coeducación, la diversidad sexual y la corresponsabilidad en los cuidados, impulsando una comunidad optimista y multicolor.

Nuestro objetivo es ofrecer una educación “excelente” basada en valores humanitarios

